

HAIKAREN KONTRAKO OPERAZIOA. Gazte erakundea legez kanpokoa den bere garaian erabakiko duela dio epaileak

Erredakzioa | DONOSTIA

Baltasar Garzon Entzutegi Nazionalako epaileak atzo goizaldean erabaki zuen Haikaren kontrako operazioan atxilotutako 16 lagunak espetxeratzea. Guztiei ETA erakunde armatuko kide izatea leporatzen die. Garazi Biteri, Igor Suberbiola, Olatz Dañobeitia, Unai Beaskoetxea, Igor Chillon, Olatz Karro, Mikel Ayllon, Arturo Villanueva, Igor Ortega, Ibon Meñika, Ugaitz Elizaran, Arkaitz Rodriguez, Patrick Jimbert, Garikoitz Etxeberria eta Aiora Epelde asteartean atxilotu zituzten, eta guztiek uko egin zioten deklaratzeari.

Beste atxilotua Asier Tapia zen. Asteazkenean atxilotu zuten. Bezperan polizi operazioa salatzeko Haikak eta ezker abertzaleko zenbait ordezkari eskaintako prentsaurrekoan Haikaren agiria irakurri zuen gazte horrek.

Epaileak larunbata eguerdian amaitu zuen deklarazio hartzea baina ez zuen espetxeratze autoa kaleratu atzo goizalde arte. Lehenengo hamabostak Soto del Real kartzelan sartu zituzten eta Asier Tapia, berriz, Alcala Mecora eraman zuten.

Garzonek ETako kide izatea egotzi die guztiei baina ez du atxilotu bakoitzaren aurkako inputazioei buruz zehaztasunik ematen, eta orokorki hitz egiten du. Soilik Asier Tapiaren kasuan zehazten du zerbait. Haikaren jardueraren ardura-dunak erakunde horretako bozeramaileak direla esaten du Garzonek, baina autoan ez du zehazten atxilotu bakoitzak zein ardura zuen gazte erakundearen. Haika «ETA erakunde terroristaren barruan» kokatzen du, eta ETaren adar bat dela iritziz dio Garzonek. Hala ere gazte erakundea legez kanpokoa den ala ez bere garaian aztertuko dutela dio.

«Jarrai-Haika ETaren menpe eta haren aginduetara» dagoea esateko zantzuak ikusten ditu. Hala, ETak kale borroka diseinatu, KAS-EKInek zuzendu eta Haikak arduradun eta militanteen bidez exekutatu egiten duela dio Garzonek. Ondorio horietara iristeko Garzonek dokumentu zaharrak aipatzen ditu, Jarrairen garaiko hainbat txosten, haietako batzuk barne gogoetak, eta baita dokumentu publikoak ere. Jarraik KASi bidalitako agiriak ere aipatzen ditu eta baita ustez ETari igorritakoak ere.

Haikak ETarekiko izango lukeen menpekotasuna argudiatzeko, Garzonek azken urteetako zenbait atxilotura aipatzen ditu. Atxilotuen artetik zenbait

16 atxilotuak kartzelatu ditu Garzonek Haika ETaren adar bat dela argudiatuz

Epaileak ez ditu azaltzen ebazpenean Haikako kide bakoitzaren aurkako akusazio zehatzak



Arkaitz Rodriguez, Aiora Epelde eta Garikoitz Etxeberria.



Igor Ortega, Ibon Meñika eta Ugaitz Elizaran.



Garazi Biteri, Igor Chillon eta Igor Suberbiola.



Goian Olatz Dañobeitia eta Unai Beaskoetxea, eta behean Olatz Carro eta Mikel Ayllon.

ETA-REKIKO LOTURA

«ETak kale borroka diseinatu du, KAS-EKInek zuzendu egiten du eta HAIAKAK exekutatu»

OTEGIREN JARRERA

«Prentsaurreko aurretik Otegik Tapia animatzen du, eta aginduak ematen dizkio izan beharreko jarrerari buruz»

Haikako kide izanikoak direla nabarmentzen du Garzonek.

Hori guztia kontuan izanik espetxeratzea agintzen du. Ihes egiteko aukerak, justiziaren lana oztopatzeko arriskua eta berriz ere delitua egiteko arriskua aipatzen ditu erabakia argudiatzeko.

EH

Otegiren jarrera ikertzeko eskaera

Haikako 16 kideen espetxeratzea agintzeaz gain Arnaldo Otegi EHko bozeramailearen jarrera ikertzeko eskatu dio Garzonek fiskalari. Jakina denez Haikak operazioa baloratzeko egin zuen prentsaurrekoan ezker abertzaleko zenbait kide izan ziren, tartean Arnaldo Otegi. Asier Tapia —agiria irakurri zuen gaztea, eta ondoren atxilotu zutena— gaztea agerraldi horretan Otegik gidatu eta babestu zuela dio Garzonek. Zehazki, gazteari agiria nola irakurri behar zuen eta zein jarrera erakutsi behar zuen esan ziola dio Garzonek.



EDURNE KOCH
Arnaldo Otegi.

Prentsaurreko horren ondorio izan ziren epailearen iritziz ondorengo orduetan izaniko zenbait kale istilu. Ondorioz, ETako kide izateaz gain, desordena publikoak bultzatzea eta mehatxuak egotzen dizkio. «Erakunde armatuko kide izatearen delitua Haikako kide izateagatik gertatzen

da», dio Garzonek. Beste bietan bultzatzailea dela dio. Hala aipatu prentsaurrekoari garrantzia ematen dio. Bere ustez agerraldi horrek «sinesgarritasun handiagoa» hartzen du gertatzen den moduarengatik: «Asier Tapia Arnaldo Otegi eta HBko beste zenbait buruzagik babestuta, animatuta eta zuzenduta agertzen da. Horrek ematen dio garrantzia, sinesgarritasuna eta larritasuna, berehala eragiten dituen ondorioak —kale istiluak— kontutan izanik». Hori dela-eta, eta Arnaldo Otegiren jarrera ikergai dela iritziz dio Garzonek. Otegi EAEko legebiltzarkidea da eta beraz foruduna. Hori dela eta, fiskalari dagokio haren inguruko ikerketa bideratzea. EHk ezker abertzalearen kontrako erasoaren baitan kokatu zuen Garzonek eskaera.